



## «AKITANIA EUSKADI EUROESKUALDEA» LURRALDE LANKIDETZARAKO EUROPAR TALDEA

### Sozietatearen izena

Agrupación Europea de Cooperación Territorial “Eurorregión Aquitania/Euskadi”.

### SIRET

13001563900011

### Izaera

Lurralde Lankidetzarako Europar Taldea.

### Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

### Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

### Sorrera

Erakundea 2011ko abenduaren 6an eratu zen, [eta Gobernu Kontseiluak 2011ko maiatzaren 31ko bilkuran](#), hitzarmen bat sinatu zuen Akitaniako Eskualdeko Kontseiluarekin, europar esparruan euroeskualde bat eratzeko, Lurralde Lankidetzako Europar Elkarteko legezko formarekin, honako honetan argitaratua: [49/2011 EBAZPENA, abenduaren 15ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenak argitaratzea ezartzen duena](#). Erakundearen eraketa Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu zen, [2011/S 234-377846](#) zenbakian.

### Sail-atxikipena

Lehendakaritza.

### EJSN

9499 Beste leku batzuetan jaso gabeko elkartze-jarduerak.

### Helburua

Euroeskualdearen ekonomia, gizartea eta kultura garatzen lagunduko duten lankidetzajarduerak burutzea da LLETen berariazko helburua. Orobat, euroeskualdea toki-, eskualde- eta nazio-instantzietan eta Europakoetan zein nazioartekoetan ordezkatzeko da beste helburuetako bat.

Kide direnen arteko eta haien aldeko mugaz gaindiko edo eskualdez gaindiko elkarlana erraztu eta sustatu behar du LLETk; aurrerantzean “lurralde-lankidetzak” deituko diogu. Hori guztia Europar Batasunaren barruan lurralde horien ekonomia eta gizarte mailako kohesioa sustatzeko helburuarekin baino ez da egingo, eta estatu barruko lurralde-antolaketa errespetaturik jardungo da.


LLETk ziurtatzen du LLET hirugarrenen aurrean ordezkatzeko LLETen xedeari dagokionez, toki-mailan, Estatuan, Europan edo nazioartean.

### Sailkapena kontabilitate nazionalean

Ez dago eskuragarri.

### Erakundearen ekarpenak

EAEko Administrazio Orokorra %50,00  
 Akitaniako Eskualdeko Kontseilua %50,00



### Batzarra

Batzarrak 20 kide izango ditu, Akitaniako Eskualdeak eta Euskal Autonomia Erkidegoak modu paritarioan aukeratuak. Batzarra LLETko eztabaida-organoa da. Eskubide osoko eskumena du LLETi buruzko gai guztietan. EAEko Administrazio Orokorraren aldetik, Batzarrak honako 10 kide hauek zituen urteko kontuak onartu ziren egunean:

Alain Rousset jauna	Akitania Eskualdeko Kontseiluaren Lehendakaria
Bernard Uthurry jauna	Akitania Eskualdeko Kontseiluaren Lehenengo Lehendakariordea, azpiegitura eta garraioen arduraduna
François Maïtia jauna	Akitania Eskualdeko Kontseiluaren Lehendakariordea, Europa eta mugaz gaindiko lankidetzeta eta eskualdeen arteko arduraduna
Renaud Lagrave jauna	Akitania Eskualdeko Kontseiluaren Lehendakariordea, turismoaren arduraduna
Gérard Boulanger jauna	Eskualdeko Sailburua, kultura eta hiritargoaren arduraduna
Sylvie Durruty andrea	Eskualdeko Sailburua
Alice Leiciagueçahar andrea	Eskualdeko Sailburua
Mathieu Bergé jauna	Eskualdeko Sailburua
Jérôme Peyrat jauna	Eskualdeko Sailburua
Michel Veunac jauna	Eskualdeko Sailburua
Iñigo Urkullu Renteria jauna	Lehendakaria.
María Aranzazu Tapia Otaegui andrea	Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua.
Cristina Uriarte Toledo andrea	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua.
Ana Isabel Oregi Bastarrika andrea	Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua.
María Ángeles Elorza Zubiria andrea	Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia.
Estíbaliz Hernáez Laviña andrea	Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordea.
Pedro María Hernando Arranz jauna	Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko sailburuordea.
Patxi Xabier Bazterrira Galparsoro jauna	Hizkuntza Politikarako sailburuordea.
Antonio Aiz Salazar jauna	Lurralde Plangintzaren eta Uren sailburuordea.
Mikel Antón Zarragoitia jauna	Mugaz Gaiendiko Lankidetzarako ordezkaria.

### Ekitaldiko urteko kontuak

[Ekitaldiko urteko kontuak.](#)

### Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	684.487 €
Ondare garbia	506.461 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	0 €
Batez besteko langile-kopurua	Ez dago eskuragarri.

### Sozietatearen helbidea

Lekueder kalea, ZI des Joncaux - 64700 Hendaia (Frantzia).

### Webgunea

[www.aquitaine-euskadi.eu](http://www.aquitaine-euskadi.eu)